

# BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Geure enpresak famili askoei ateak irekiko dizkiete, zeren eta geuk jostailu zaharrak edo erabiltzen ez direnak hartu eta egoera onean daudenak salmentan jarri eta egoera txarrean dauden jostailuak konpondu eta saltzen jarriko ditugu baina hau guztia prezio baxuagoan. Edozein familiak diru arazoren bat eduki ezker jostailu “berriak” erosteko aukera edukiko du eta prezio oso egokietan.



Ahal dugun bezero guztientzat jostailuak prezio eskuragarrietan edukitzen ahaleginduko gara.

Gure enpresak eskainitako zerbitzua laguntza pertsonal eskaini bat izango da hau da. Herriko zaborrontzi guneen alboetan beste zakarrontzi berezi batzuk ipiniko ditugu txartel batekin ireki beharko direnak eta bertan bezeroek jostailu edo liburu zahar edo egoera txarrean dauden materialak gordeko dira, hortik gure fabrika/dendara garraiatuko ditugu eta bertan jostailu eta liburuak konpondu egingo dira berriz salmentan jarriko genituzke bezero askori lana erraztuko diogula jakinez. Hau da bezero askok jostailu jakin batzuk prezio altua dutela jakinda ezin dituzte onartu erostea eta hori saihesteko helburuarekin sortu dugu gure enpresa.

Azken batean, bezeroen harremanak sendotzea ez da gaizki etortzen, eta horregatik bezeroekin harreman puntu bat edukitzea komenigarria da.